

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 7a / 528. zenbakia

'Ezustekoa'

Kaixo potxola! Ezustekoa, eh? Gustura asko ikusiko nuke zer nolako aurpegia jarri duzun, mahai gainean, armozurako katiluaren aldamenean karta hau topatu duzunean. Lasai, ez da ezertxo gertatzen, ez joandako hamar urtean pasatu izan ez denik behintzat.

Atzo, badakizu, beste askotan bezalaxe, mendira joan nintzen bizikletaz izerdi apurren bat botatzeko asmotan eta, jakina, bihotza arrapaladan jarri eta pentsamendua bere kasa joan zitzaidan. Konturatu orduko hamar bat urte atzera egin eta ordutik gaurdaino jorratutako bidearen errepassoan eman nituen mendikadak irauin zituen pare bat orduak; orduantxe erabaki nuen hau idaztea.

Makinatxo bat une on eta txar, hainbat makalune eta goraldi, barre algara nahikoa eta malkoren bat ere agerian geratu zitzaizkidan, baina azkenean erabat harritu ninduen zera izan zen, oroitzen guztiotan, nire zatitxoren bat izango bazina lez -eta horrela sentitzen zaitut gainera-, hortxe agertzen zirela beti. Zure itxurazko ahuldadearekin zulotik irteten laguntzeko heldulekurik sendoena; irrifar eta ukitu bat konpartitzeko beti gertu, zarata handi barik, aparteko zalapartarik atera gabe, "zeure" eta "neure" bizitza "GEURE" bihurtzea lortu duzun maitalerik maiteena. Bata bestearen atzetik datozkit burura norbere independentzia, bikotearen barruan bakoitzak bere bizitza eraikitzeke egiten genituen ahalegin antzu mordo haiek. Zenbat ezin... zenbat eztabaida eta gaizki ulertu -izarapenko epeltasunean argitzen genituenak-, konturatu arte gaztetxo denboretako aukeraketa etengabe hura dagoneko bizitzaren gurruplak egiten zigula eta berak bateratzen zituela emeki-emeki gure bideak. Orain, berrogeita bi urte gazte hauetatik begiratuta, ez naiz kexu, ez horraittio! Aspaldiko begi haiekin begiratu gero, sarritan ez dut egungo neure burua ezagutzen, ez ditut gauza asko ulertzen, konturatu naiz zeure traza handiagoa dudala hainbat gauzatan neurea baino, baina ez naiz trukatzeko oneraz damutzen.

Maite zaitut! Barren-barrenetik maite ere, eta badakizu gainera -askotan ahoskatzen dugu sentipen hori eta beste askotan gure ekintzek egiten dute berba-, baina hain gustuko duzun abestiak dioen bezalaxe -maite nauzula dakidan arren, esan eistazu berriro- horixe besterik ez da eskutitz honen helburua: sentitzen dudana maitasuna ahal den neurrian adieraztea, zurekin ditudan mila milioi zorretako bat kitatzea, geratzen zaigun urte oparo mordoan kitatzen joango baikara gainontzekoak.

Esku artean hau hartu orduko kilometro batzuk izango ditugu tartean eta horiek ere ez dira gauza izango gu biok urruntzeko. Lehenik ere urruntze honek hurbildu egiten gaituela aspaldi egiaztatatu baikenuen, eta mendian -elur arteko bakardadean- zure

oroitzapenari darion epeltasunak gozatuko ditu nire hotzak, zure irriaren doinuak estaliko du haize bortitzaren ulua et hainbeste gozatu eta gozatuko dugun ingurune honexetan aldamenean sentituko zaitut. Eskerrik asko horregatik ere.

Okerruneren batzuk ere izan dira gure artean, jakina, -arantza bako larrosarik...- baina zein gozoa izan den beti ekaitzaren ondoko barealdia, zein ederra ilunaren osteko argitasuna eta zenbateraino aberatsa jakitea haserrealdietan ere bultzada xume bat nahikoa dela gure elkarbitzita bere onera ekartzeko, benetako irriño batek aldamenekoa samurtu eta berriro ere beso zabalik jartzen gaituela, aurrera egiteko prest.

Edozelan ere, hori guztia egia izanda, artean, neure esku egonez gero, hainbat gauza aldatuko nizuke. Ez fisikoki, ez; topiko samara izanik ere, barne edertasunari -hain oparo duzun horri- garrantzi handiagoa ematen diot; gorputz ikusgarriak baino, begirada oxo batek gehiago betetzen nau: urteak akaso... Hemendik kendu, han ipini, beste hura gehitu eta agian perfekzio modukoa, neurrira egindako panpin zoragarri bat lortuko nuke. Zertarako, ordea. Hegoak ebaki banizkio... eta nik txoria nuen maite! Hortaz, orain arte bezalaxe noizbehinka tokatuko zait -baita zeuri ere- mingainari haginkadaren bat jo beharra eta amorrazioaren amorrazioaz isuritako anpuluren bat izerdiarekin bat egitea, sortutako korapiloa askatzearen aukeratutako mendiko aldapa pikoren batean. Ez ditugu halakoak kontuan hartuko -ikasteko ez bada, behintzat- azken finean, hurrengoan bide bera biok goxo-goxo, elkarren arrimuan, natura eta konpainiaz gozatuz arakatuko baitugu.

Jaungoikoak, naturak... nork daki zeinek jarri dizkigun ondorengoak ekarri eta gure bikote hau hirukote bihurtzeko trabak, lau besoko gauak sei besoko bihurtzeko eragozpenak. Zenbat sufritu izan dugun horren kontura! Zer egingo diogu bada, ez daukaguna nahi izan behar horrek...! Hemendik aurrera ere, orain arte bezala ahalegin faltarik ez da geratuko. Gero gerokoak! Dena dela, horri esker, denbora eta gogo gehiago geratzen zaigu bata besteaz gozatzeko, ez dezagun momenturik txikiena ere alferrik galtzen utzi, eta noizean behin, orain bezalaxe, aurrez aurre posible ez denean, bestearen oroitzapena ferekatuko dugu, haizeak edo lainoek gure amodiozko testigantza eramango dutelakoan.

Ondo zoriotsu izan naiz orain artean. Ez dut esango une guztietan pozez gainezka egon naizenik zure ondoan, edota zure eraginak bakarrik lortu duela momentuan bereganatzen nauen ongizate hau; ez litzateke egia izango. Baina ezin dut imaginatu ere egin neure baitan sentitzen dudana epeltasun goxo hau zu barik. Bizimoduan, egunerokotasunean hain beharrezkoak ditugun etenaldi horietako bat egin eta atzera begiratu gero, zurekiko (12. orrialdean jarraitzen du)



ROBERTO IZAGIRRE

AMODIOZKO GUTUNEN XI. BERRIGARA LEHIAKETAKO

HERRIKO ONENA

ZUHAITZ EGUNA: ERAKUSKETA, ZAPATUAN/6 • EUSKAL LIGA: BERGARA-GALDAKAO, AGORROSINEN/10

AZALA: INAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: MONIKA BELASTEGI

Passionata lentzeria

GANTXEGI MERTZERIA
Telesforo Aranzadi 2



Aubade lentzeria

IGARZA MERTZERIA
Irala 5



Larrosa

GOROSTI LORA DENDA
Matxiategi 3



Eskumuturrekoa eta belarritakoak

HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4



Belarritakoak, eskumuturrekoa eta lepokoa

HARAIA ZILARREZKO BITXIAK
Boni Laskurain 4

Otsailaren 14an
San Valentín

ATREBENTZIAEZPADA/ Taxirik erabiltzen dozu? Erabili izan dozunian, zelako egoeratan izan da?



MARIA GUTIÉRREZ
42 urte



MARIA PILAR ZUBIZARRETA
53 urte



AMAIA AGIRREZABAL
29 urte



GABRIEL MEDINA
71 urte



MERTXE ARANBURU
74 urte



LORETO LALINDE
63 urte

Ez dot taxirik erabiltzen normalian. Hemen ez dot behin be erabili. Inoiz erabili izan dot, baiña kanpuan, aireportura juteko. Nere automobilla erabiltzen dot mobitzeko.

Ez dot taxirik erabiltzeko ohiturarik. Nere kotxian mobitzen naiz. Dana dala, tokau izan jat taxia hartzia, baiña beti lan kontuengatik izan da. Preziakutuzen be ez dakit.


Ez dot taxirik erabiltzen. Gogoratzen dot behin herri bateko jaixetan gendela, Bergarara bueltatzeko taxia hartu nahi giñuala, baiña momentu haretan ez zeren.

Oso gutxitan erabili dot. Bi seme dauzkat, eta harek eruaten nabe komeni jaten tokira. Lehenago, semiek karnetik ez zeukenian hartu izan neban inoiz taxiren bat.

Taxirik ez dot erabiltzen. Etxian kotxia daukagu, eta haretxekin arreglatzen gara. Gaiñera, ez dot uste sekula taxirik erabili dote-nik. Ez naiz akordutzen, behintzat.

Ez dot taxirik erabiltzen. Jundako hogeitaka urtitan ez dot taxirik erabili. Kotxia daukat. Lehenago, erabiltzen neban, ba, Eibarrrera edo Mondragoera medikuanera juteko-edo.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SAHESBIDEA, EGOERA KASKARREAN Oraingo astean jaso dugun e-posta baten izenburua da hori. Herritar batek bidali du. Idatzian dioenez, saihesbidea oso egoera kaskarrean dago Poligonotik hasi eta Labegaraieta amaiera arte. Gainera, joan den asteko elurrak egoera gaiztotu egin duela gehitu du. Konpontzea nori dagokion ez dio askorik axola; eta dagoeneko ordua badela gehitu du. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

San Antonioko irteera, itxita

Asteburuan itxita jarraituko du Urteaga kaleak ibilgailuendako, etxe bat jausteko arriskua dagoelako.

Senior eskubaloia, etxean

Senior mailako bi eskubaloi taldeek (neskena eta mutilena) kiroldegian jokatu dute zapatuan.

Roberto Izagirre

Ezusteak gutunarekin Herriko Gutun Onenaren saria eskuratu du Amodiozko Gutunen Lehiaketan.

ASTEKODATUA

263

LITRO M2-KO JASO DIRA AZKEN ASTEAN

Euria izan dugu asteko protagonista. Luis Mari Agirrerren datuen arabera, azken zazpi egunotan 263 l/m²-ko jaso dira Bergaran. Azaroaren bukaeran ere antzeko euri jasak izan ziren.

BESTEKEESANA

“Aurten bukatuko dut kontratua, neguan, eta nire asmoa da pilotan egiten jarraitzea. Otsailaren

20an 41 urte beteko ditut. Badira urte gehiagorekin erretiratu diren pilotariak. Aquilesen orpoekin bueltaka ibili nintzen denbora luzez, baina arazo haiek gaintitu nituen eta urte bat edo bi daramatzat frontoiaz gozaten. Jarraitzeko moduan ikusten dut nire burua. JOSE MARI ZEZEAGA / Pilotaria 'El Diario Vasco' / 03-01-31

“Ezinbestekoa jotzen dut Eusko Ikaskuntzak berreskuratzea sortzaileek 1918an zuten izpiritu berri-

tzailea. Gai izan ziren herriarendako interes handiko ideia eta instituzioak sortu eta martxan jartzeko. JAVIER RETEGI / Elko presidentea 'Asmoz eta Jakitez' / 03-01

BERAIEKDIÑOÈ/ Iñigo Iñurrategi



Hazkunde eroa

Adurra darie buruzagiei datu makroekonomiko-ei begira eta pozez ikusten ditugu, arro, urtetik urtera gure ekonomia-aren hazkundearen berri ematerakoan. Eta guk, gehienok, datu hauei ez diegu kasu handiegirik egiten, baina bat egiten dugu beraiekin eta etengabe kontsumitzen dugu, hazkundera era jasan ezinean bultzatuz. Hazi, hazi, ... noiz arte? Kalkulu azkar bat eginda, urtero %3,5 hasiko balitz gure ekonomia 100 urtetan 32 aldiz biderkatuko litzateke, 1.000 aldiz 200 urtetan eta 40.000 aldiz 300 urtetan.

Atera kontuak! Orain baino 40.000 aldiz injustuago, orain baino 40.000 aldiz jasan ezinago. Noski, norabide eta abiadura hori noizbait eta norbaitek aldatuko du, baina noiz? Nork? Guk gure hurrengoei pasa behar diegu marroia?

Natura, Lurra, gure bizilekua hausten, husten, larrutzen ari

gara. Eta nork geratuko du erokeri hau? Akaso Europako Banku Zentraleko presidentek, zeinak gehiago kontsumitzera animatu berri gaituen Europako ekonomia suspertzeko?

Gaur egungo gizarte ereduaren jasangarritasun ezaren zergatia, desegokia eta jasangaitza den eredu ekonomiko batean baino zerbait sakonagoan datza: gure zibilizazioan, gure kulturaren mui-ean, hain zuzen ere. Gure zibilizazioa baita, lehenengo aldiz historian, natura bera-gandik zerbait kanpoko bailitzan kontsideratzen duena, berarekiko independentea, gizakia naturaz gandi balego bezala.

Naturaren jabegoa gureganatu dugu, eta bera menperatzea progresuaren seinale da.

Gobernua txapapotez belztuta dago, eta sutuki kritikatzan dugu, baina gu geozidioaren konplize gara, eta begiak itxi besterik ez dugu egiten.

Zer axola dio horrek. Azken finean "Euskal Herria ondo doa", eta segi dezagun festa.

“Naturaren jabegoa gureganatu dugu eta bera menperatzea progresuaren seinale da”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 8**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 9**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 10**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 11**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 12**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 13**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (banda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|----------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

BEDELKARREKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK
Bedelkarrek joan den urtarrilaren 8an egindako zozketan honako zenbaki hauek izan dira sarituak: 2.250, 8.967, 23.741, 59.381 eta 104.617. Txarteloneko jabeek 600 euroko erosketa bono bana eskuratuko dute.

IRUDI ERLOJU DENDAREN ZOZKETA
Irudi erloju dendak urtero Gabonetan bezeroen artean egiten duen zozketan 9.232 izan da saritutako zenbakia.

HELDUEN HEZIKETA ESKOLAN MATRIKULA ZABALIK
Helduen Heziketa Eskolan (HHI-EPA) matrikula epea zabalik egongo da otsailaren 7ra bitartean. Argibide gehiago, Irizar jauregiko bigarren solairuan (Barrenkalea 33) edo 943 76 44 52 telefonoan.

HITZALDIA IPINTZA INSTITUTUAN HILAREN 13AN
Datorren egunean, hilaren 13an, DBHko bigarren mailako ikasleendako eta haien gurasoendako hitzaldia izango da, Ipintzako aretoan, 19:00etan. Batxilergoaren ondorengo irteerak aztertzekeo hitzaldia izango da.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Datorren eguaztenean, hilaren 12an, odol ateratzea egingo dute. Ohiko moduan, Seminarioko lokalean izango da, 18:30ean hasita.

BERTSO AFARIA DATORREN ZAPATUAN ARTATSEN
Datorren zapatuan, otsailaren 15ean, bertso afaria izango da Artatse elkartean, 21:00etan. Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga izango dira bertan. Izena ematea (20 euro) Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan egin daiteke.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Oلابarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN


1993koa, aspaldiko urtarrilik lehorrena

1993ko urtarrileko protagonistetako bat euri eza izan genuen. Luis Mari Agirrek esan zigunez, 1984a ezkerro hura izan zen urtarrilik lehorrena: 8,2 l/m²-ko besterik ez zen jaso; oso gutxi, urteko sasoi horretarako. Tenperaturari dagokionez, berriz, batez bestekoa 8,8 gradu izan zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Mormoxetia"



Zurrumurrua, esamesa, marmarra, txutxu-mutxua. —Zenbait petralek mormoxetia besteik eztauka.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 1 **0 °C**

MAXIMOA
Astelehena, 3 **12 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **263 l**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	6 °C	5 °C	59,3 l/m ²
Eguena, 30	7 °C	2 °C	60,1 l/m ²
Egubakoitza, 31	3 °C	3 °C	18,4 l/m ²
Zapatua, 1	5 °C	0 °C	28,2 l/m ²
Domeka, 2	8 °C	3 °C	27,1 l/m ²
Astelehena, 3	12 °C	6 °C	37,3 l/m ²
Martitena, 4	9 °C	9 °C	32,6 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'MI GRAN BODA GRIEGA'

ZUZENDARIA: JOEL ZWICK. AKTOREAK: NIA VARDALOS, JOHN CORBELT.

HARIA. Emakume greziar baten eta gizon irlandar baten arteko ezkontza da istorioaren ardatza; neskaren aitak ez du oso begi onez ikusiko ezkontza...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'MÁS DE MIL CÁMARAS VELAN POR TU SEGURIDAD'

ZUZENDARIA: DAVID ALONSO. AKTOREAK: ANTONIO HORTELANO, LAURA MANZANEDO, FERNANDO ANDINA.

HARIA. Beldurrezko film honetan, telefono dei misteriosu bat jaso-ko dute gazte unibertsitario batzuek, eta gauerdian zoologiko huts baten jarriko diete hitzordua...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'EL GRAN DICTADOR'

ZUZENDARIA: CHARLES CHAPLIN. AKTOREAK: CHARLES CHAPLIN, JACK OAKIE, PAULETTE GODDARD.

HARIA. Denboraldi baten ama- siak jota egon ondoren, bizargi judu bat Tomaniara itzuliko da. Bere herrialdea diktadura baten pean dagoela ikusiko du. Hystorikoa diktadorea dago agintean mundua gobernatzeko itxarop- na du. Chaplineko zuzendutako maisulan klasikoa.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilaren 13an, 20:00etan. Zinekluba

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

HIRIGINTZA/ Datorren astean botako dute seguruenik Bonbulu etxea; bien bitartean, errepidea itxita egongo da

Datorren astera arte Urteaga kalea itxita izatea erabaki dute

MONIKA BELASTEGI

Urteaga kalea itxita dago ibilgailuendako joan den zapatua ezkerro, Bonbulu okindegia zenaren fatxada zatia erori zenetik. Etxea errepidearen kontra dagoenez, Udalak bidea ixtea erabaki zuen, segurtasuna bermatzeko. Etxea eraitsi egingo du Udalak.

Datorren astean botako dute, seguruenik, Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan: "Gure asmoa lehenbailehen botatzea da; hala ere, oraindik ez dakigu zehatz noiz izango den, holako eraispen batek eskatzen duen prozedura dela-eta. Dena dela, litekeena da datorren astean izatea".

Joan den zapatuan, 16:45 aldera erori zen okindegi zaharra. Etxearen barruko aldearen zati handi bat erori zen. Kanpoko aldeari dagokionez, berriz, errepide aldera ematen duen fatxadaren zatia ere erori zen. Ez zati handia, baina harrietako batzuk errepidera jausi ziren.

Hori dela eta, Udalak errepide ixtea erabaki zuen, etxe osoa erortzeko arriskua dagoelako. Zapatuan bertan itxi zuten gainera, eta datorren astera arte, behintzat, hala jarraituko du.

Urteaga kalea herriak duen sarrera-irteeretako bat da; Antzuola aldera joateko edo handik etortzeko bidea, hain justu. Hori horrela, eta itxita dagoen bitartean, ibilgailuek ekialdeko saihesbidea erabili beharko dute.

ASPALDI BOTATZEKO ASMOA

Bonbulu etxea botatzeko asmoa ez da orain sortu, Victoriano Gallastegi alkateak aurreratu duenez. Orain dela urte batzuetatik hona eskoratuta dago etxea,



AITOR URIZAR

Aurreko fatxadako harri batzuk errepidera erori ziren; dena dela, erauspen handiena etxearen barruko aldean gertatu zen.

kamioi batek jo eta aurreko fatxadan zuloa egin zionetik. Hori dela eta, alkateak gehitu du orain gertatu den erortzeak "arindu" besterik ez duela egin Udalak lehenagotik zuen asmoa.

Eraispen gastuak bere gain hartuko ditu Udalak, Gallastegi alkatearen esanetan, eta "litekeena da trukean orubearekin gertzea Udala. Hala ere, eraikinaren jabeekin negoziatzen ari gara

oraindik, eta ezin da ezer definitiboa esan".

Bestalde, Bonbulu etxearen parean, errepidearen beste aldean, nagusi berberak duten eraikina ere bota egingo du Udalak.

Segurtasuna bermatzeko, itxita edukiko du Udalak Urteaga kalea ibilgailuendako

Udala eraispenaren kargu egin eta jabeek trukean zer eman negoziatzen ari dira bi aldeak

Datorren astean botako du, seguruenik, Bonbulu okindegi zaharra Udalak

Lau bat tona janari sahararrendako

MONIKA BELASTEGI

Errefuxiatu sahararrendako janari bilketa kanpaina amaitu berri da. Dagoeneko janaria dendetatik jaso eta Udalak Erregetxo plazan duen eraikinera eraman dute kanpainaren arduradunek.

Hori horrela, astean barrena, hainbat lagun janari hori sailkatu eta kutxetan sartzen ibili dira. Hamar kilo inguruko kutxetan sartu dute janaria, eta, gutxi gorabehera lau tona inguru batu dituztela eman dute aditzera. Oraindik ere janari guztia sailkatu barik dagoen arren, Erre-

getxo plazako eraikineko gela bat janariz beteta dago, eta, antolazailen esanetan, "eskerrak eman behar zaizkie herritarrei, kanpainari oso ondo erantzun diotelako, baita izan duten jarrearerangatik ere".

Bestalde, datu zehatzagoak datorren astean emango dituztela ere adierazi dute, janari guztia sailkatuta eta kutxetan sartuta dutenean. Horrekin batera, janaria errefuxiatuen kanpamentutara garraiatzeko Gipuzkoan erosi nahi diren kamioiendako zenbat diru jaso den ere azalduko dute kanpainaren arduradunek.



MONIKA BELASTEGI

Astean barrena, janaria sailkatu eta kutxetan sartzen ibili dira hainbat lagun Udalak Erregetxo plazan duen eraikinean.

LABUR

Jaietan zezenketa iragartzeko kartel lehiaketa hasi da

Zezen zaleak taldeak VI. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. Nahi duten guztiek har dezakete parte, adin edo nazionalitate muga barik. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta gehienez hiru lan aurkez daitezke. Estiloa eta teknika libreak izango dira. Marko barik, euskarri gogorrean eta izenpetu barik edo sinadura ezkutuan dutela aurkeztu behar dira lanak. Neurriari dagokionez, gutxienez 55x46 cm eta gehienez 146x114 cm izan behar dute.

Lanak kultura etxean aurkeztu behar dira, asteleheneetik egubakoitzera, 16:00etatik 21:00etara, maiatzaren 15etik 22ra bitartean, biak barne.

Epaimahaiak sari bakarra emango du maiatzaren 23an. Bestalde, epaimahaiko kideek aurkeztutako lanen artean aukeraketa egin eta erakusketa egingo dute maiatzaren 23tik ekainaren 1era bitartean kultura etxean

Taxien 2003ko tarifak onartu berri ditu udalbatzak

Tarifok, oro har, %5 igo dira aurten, taxien sektoreak dituen kostuak izandako igonera dela-eta. Hori horrela, tarifak ondokoak dira: egunez, bandera 2,52 euro izango da; kilometroak 0,7875 euro balioko du eta itxaronaldiak, 15,099 euro. Gaueko eta jaiegunetako tarifei dagokionez -gaua 23:00etatik 07:00etara da-, bandera 2,52 euro izango da; kilometroak 1,2699 euro balioko du eta itxaronaldiak, berriz, 23,7195 euro.

Bertako espezieak sustatzeko, Zuhaitz Eguna antolatu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, izango da, eta espezie autoktonoak bultzatzeko helburuarekin antolatu dute. Goiz osoan barrena hainbat espeziaren erakusketa egongo da San Martin plazan, besteak beste.

Bertako espezieak sustatzeko politikaren barruan antolatu du Zuhaitz Eguna Udalak. Bihar, zapatua, izango da, eta zuhaitzekin lotutako hainbat gauza egongo dira ikusteko eta erosteko goiz osoan barrena. Egunaren barruan bi ekitaldi nagusi egongo dira: bertako zuhaitzen erakusketa, bata, eta zuhaitz landatze sinbolikoa, bestea.



ARTXIBOA

Bertako espezieak hobeto ezagutzeko aukera eskainiko du zapatuko erakusketak.

ZUHAITZEN ETA BASOLANERAKO TRESNERIAREN GAINEKO ERAKUSKETA

09:30ean hasi eta eguerdira bitartean, bertako zuhaitzen gaineko erakusketa egongo da San Martin plazan. Erakusketan zuhaitzen ezaugarrien berri emango dute eta hainbat zuhaitz mota erosteko aukera ere izango da. Gainera, erakusketa osatzeko, basolanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta ere egongo da leku berean.

ZUHAITZ LANDATZE SINBOLIKOA POL-POL INGURUAN

Zuhaitz Egunaren bigarren ekitaldi nagusia zuhaitz landatzea izango da. Landatzea Pol-Pol mendiaren inguruetan izango da, eta hara hurreratu nahi duten guztiendako autobusa antolatu du Udalak: 10:30ean irtengo da, Ibargaraiako autobus geltokitik.

Horrekin guztiarekin, dei berezia egiten die Udalak herritar guztiari eta ikastetxei zapatutako, eta antolatutako ekitaldietan parte hartzea gonbidatzen ditu. Horrekin batera, eskola-umeei ahalegin berezia eskatzen die, erakusketa ikusi eta zuhaitz landatzean parte har dezaten.



Santa Ageda bezpera euritsua

Martitzenean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera benetan euritsua egin zuen. Hori dela eta, herrian barrena abestea pentsatuta zeukaten taldeetako asko ez ziren kalera irten. Ikastetxeetan, esate baterako, eskolatik irten barik kantatu zuten ia guztiak.

Era berean, Jardun euskara elkarteko Bertso Eskolari dagokionez, horiek ere kalera ez irtetea erabaki zuten. San Joxepe abesbatzak, herriz, kantu kantari ibili zen goizean barrena.

Egunotako euri jasen ondorioz, ibaia gainezka Ibaiondon

MONIKA BELASTEGI

Astean barrena egindako euriak eta elurrak hainbat arazo eragin ditu herrian: batetik, erreka gainezka egin zuen Ibaiondo kalean, zubiaren azpiko aldean; bestetik, lur-jausia izan da saihebidetan.

Euskal Herriko beste herri batzuekin alderatuz, ezer gutxi izan dira egunotako euri jasek Bergaran eragindako kalteak. Dena dela, hemen ere nabaritu dugu euriaren eragina.

Martitzenean, Deba ibaiak gainezka egin zuen Ibaiondo kalean, zubiaren ondoan. Hori dela eta, Udaltzaingoa itxi egin zuen,

goizean, zubi azpiko pasabideak. Hala eta guztiz ere, iluntzean zabaldu zuten, uraren maila behera egin zuelako. Abenduan lehen astean ere euri asko egiten zuten eta Ibaiondo itxita egon zuten.

SAIHESBIDEAN, LUR-JAUSIA

Horrekin batera, saihebidetan lur-jausi txikia izan zen, martitzenean, Algodonerako zubiaren parean. Joan den astean lur-jausia izandako leku berean gertatu da. Lurra eta harriak erregide ertzerara ailegatu dira, nahiz eta ibilgailuendako eraginik izan ez eta joan den astean bezala. Ertzaintzak inguratu egin dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundia diari dagokio hura egokitzea.



lazo abenduan ere gainezka egin zuen ibaiak Ibaiondo kalean.

LABUR

Gernikatik Bergarara Deialdiak herri plataforma aurkeztuko du bihar, zapatua

Gernikatik Bergarara Deialdiak herri plataforma aurkeztuko dute bihar, zapatua, 12:00etan, Munibe plazan (San Martin plazaren ondoko plazatxo berrian). Ekitaldian bertsolariak, zanpantzarriak eta dantzariak egongo dira. Deialdira abertzale eta ezkerreko guztiak daude gonbidatuta.

Mendekoste jaietan Bideberrin izango diren rock kontzertuak antolatzeko deialdia

Mendekoste jaien barruan Bideberrin egingo diren rock emaldiak antolatzen laguntzeko dei egin du Udaleko Kultura Sailak. Horrela, interesa duten guztiak otsailaren 17an, 19:00etan, Kulturara etxean egingo den batzarrera gonbidatu ditu Kultura Sailak.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

VENEZUELA/ Venezuelarrak hiru hilabetez egon dira greban, eta Chávez presidentearen eta oposizioaren arteko borroka soluzio zaila du

Venezuela, bertatik bertara

MONIKA BELASTEGI ETA EDU MENDIBIL

Egoera nahasia bizi du Venezuelak aspaldi honetan. Hugo Chávez presidentearen aurkakoez deituta, hiru hilabetez greban izan dira Venezuelarrak eta joan den domekan oposizioak Chávez boteretik kentzeko sinadura bilketa egin zuen. Egunetik egunera Chávezen aurkako ekintzak errepikatzen dira Caracasko kaleetan. Oposizioak hauteskundeak aurreratzea eskatzen du Chávezen gehiegikeriekin nazkatuta dagoelako, ez dute abuztuko erreferendumerara arte itxaron nahi. Chávezen gobernuak, berriz, aginteari eutsi nahi dio herriak hala aukeratu zuelako. Bien bitartean indarkeriazko ekintzak ia eguneroko kontua dira. Joan zen apirilko Estatu kolpean 19 lagun hil ziren eta azken hilabeteotako istiluetan beste hainbat hilketa gertatu dira. Chávez presidentearen jarraitzaileei leporatu zaizkie gertatutako hilketa gehienak.

Kontuak kontu, badirudi Venezuelarrek Chávezengan zuten konfiantza galdu egin dutela. Duela lau urte hauteskundeetan botoen %70 eskuratu zuen Chávezek, baina urtetik urtera bere herritarren laguntza galzten joan da. Oposizioa iturrien arabera, hautesleen %60 Chávezen kontrakoa da gaur egun.

Komunikabide gehienek ere presidentearen aurkako kanpainari ekin diote eta gauzak horrela zaila izango du Chávezek boterean jarraitzea. Hala ere, soluzioa ez da erraza eta nazioarteko laguntza ezinbestekoa izan liteke arazoari irtenbidea topatzeko. Herrialde Amerikarren Erakunde bitartekari lanetan da eta Nazio Batuen Erakunde ere esku hartzeko prest azaldu da.

VENEZUELAKO EUSKAL KOLONIA

Venezuelak lotura estua izan du Euskal Herriarekin, batez ere Espainiako gerraren ondorioz euskaldun asko eta asko hara bizi izatera joan zirenetik. Oraindik ere euskaldun asko dago Venezuelako Caracasko Euskal Etxea, esate baterako, Latinoamerikako euskal etxe garrantzitsuenetako bat da. Bilbon jaio eta Caracasen 50 urte inguru daraman Amador Barrondo da bertako presidentea. 400 bazkide inguru dira Euskal Etxean eta Barrondoren arabera, gehienak Chávezen kontrakoak dira.

Venezuelarekin eta Bergararekin lotura duten hainbat lagunengan jo dugu hango egoeraren berri jakiteko. Caracasko Unibertsitateko errektore Luis Ugalderen, John Deighan eskoziarraren eta Leonel Moya venezuelarraren iritzia jaso ditugu.



LEONEL MOYA

VENEZUELARRA (CARÚPANO) / 31 URTE / IKUS ENTZUNZKOEN TEKNIKOA / 2002KO MAIATZATIK BERGARAN BIZI DA

“Argi daukat Venezuelako gertatzen ari dena oposizioaren botere-nahia ondo ikusita dela; boterea berreskuratu nahian dabilta”

Venezuelan gertatzen ari dena bi hitzetan laburtu du Leonelék: “botere-nahia”.

Botere-nahi hori “Chávez presidentearen aurkariak dute. Chávezen aurretik bi alderdi egon ziren Venezuelako gobernuan, 40 urtez. Orain, boterea berreskuratu nahian dabilta”.

Chávezek 1992an estatu kolpea eman zuenean bi alderdi horiek sinesgarritasun guztia galdua zutelako azaldu du Leonelék “ustelduta zeudelako, eta orain oposizioa daudenak horiek berak dira”. Chávezek, aldez, “herriaren sektore handi baten babesa eskuratu zuen, dena den, azken hiru urteetan behera egin du nabarmen Chávezen sinesgarritasunak”.

Besteak beste, Chávezen aurka dagoen gerra mediatikoa da arrazoia. Venezuelako komunikabide ia gehienak pribatuak dira, eta boteretsu gutxi batzuren eskuetan daude. Herritarren pentsakera aldatu egin dute euren komeni izan zaien moduan. Bestalde, AEBren “beso luzea” ikusten du honetan guztian: “Venezuelaren bezeroa izanik Venezuela lasai egotea komeni zaio”.

Duela hilabete izan zen Leonel Venezuelako, eta “grebarengatik tentsioa nabaritzen den arren, bizitza nahiko normala egiten ari dira. Grebaren atzean lehen esandako bi alderdiak daude. Argi daukat, hauteskundeak direla konponbidea, izan ere, herria banatuta dago”.



JOHN DEIGHAN

ESKOZIARRA / 37 URTE / IRAKASLEA / CARACASEN BI URTE DARAMATZA/HIRU URTEZ BERGARAN BIZI IZAN ZEN


“Konponbidea kanpotik etorri beharko da, Chávezek eta oposizioak elkarrizketarako gauza ez direla erakutsi dute-eta”

John eta Lola emaztea Caracasen bizi dira. Hango ikastetxe batean egiten dute lan, ingeles eskolak ematen. Greba amaitu eta gero berriz dira biak lanean. Hala ere, egoerari ez dio irtenbide erraza ikusten Johnek: “elkarrizketarako gauza ez direla erakutsi dute bai Chávezek eta baita oposizioak ere. Konponbidea kanpotik etorri beharko da, nik uste. Chávezek herritarren konfiantza galdu du, batez ere Estatuko petrolio enpresako hainbat zuzendari kanporatu zituenetik. Baina oraindik ere jende asko dago berarekin, oposizioak inoiz lagunduko ez dituen herritarrek hain zuzen. Oposizioan jende diruduna

eta garai batean botere asko izan dutenak daude eta bi aldeen arteko zatiketa nabaria da. Horregatik esaten dut soluzioa nazioarteko erakundeen laguntzarekin lortu ahal izango dela, bi aldeek gauzak modu onean konpontzeko gauza ez direla erakutsi dutelako. Venezuelarrek gauza bat ikasi dute azken hilabeteotan, indarrez ez dela ezer lortzen alegia. Elkarrizketa da soluzio bakarra eta arazoa lehenbailehen konpontzea nahi du jendeak. Grebaren ondorioak larriak izango dira eta ekonomia momentu kritikoa dago. Pena da Venezuelako oso jende baliotsua eta errekurtsio ikaragarriak dituelako”.



Chávezen aurkako manifestazio bateko irudia.



LUIS UGALDE

BERGARARRA / 64 URTE / CARACASEKO ANDRES BELLO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA / VENEZUELAN 50 URTE DARAMA

“Gerra zibilaren atarian gaudela dirudi. Oposizioak eta gobernuak hauteskundeak aurreratzea adostu beharko lukete”

Jesusen Lagundiak Hego Amerikan dituen unibertsitate guztietako presidentea da Ugalde. Behin baino gehiagotan elkarrizketatu da Ugalde Chávezekin: “arazoa ez da Chávezen aldekoa ala kontrakoa izatea, baizik eta ekonomikoki eta instituzionalki suntsituta dagoen herrialdea berreraikitze dagoen aukerak aztertzea. Zorritzarekin, Chávez ez da berreraikitze horretan Venezuelarrak batuko lituzkeen gizona eta inbertsioak eta enplegua sortzeko konfiantza galdu du. Hori barik, gainbehera goaz. Chavezen ‘iraultza’ ez da bideragarria, ezta errealista ere. Gaurko Konstituzioaren barruan negoziatutako


irteera demokratikoak bilatu behar dira, alde batek bestea baztertzeko. Oposizioan ere oso jarrera erradikalak dira eta horrela ez dago arazoizko giza akordioak lortzeko tarterik”.

Ugalderen arabera, konponbidea hauteskundeak aurreratzea izan liteke: “tentsio handia dago eta gerraren atarian gaudela dirudi. Hala ere, gerra zibila saihestea posible ikusten dut. Oposizioak eta gobernuak hauteskundeak aurreratzea adostu beharko lukete, irabazle nor den errekonozituz eta galtzaileen garrantzia konstituzionalak defendatuz. Hori da momentuan gehien goak eskatzen duena, baita Herrialde Amerikarren Erakundeak ere”.




SANTA AGEDA BEZPERA EURITSUA

Eguraldi benetan txarra izan genuen Santa Ageda bezperan eta, ondorioz, ohiko koplek beste urte batzutan baino protagonismo txikiago izan zuten aurten. Hala ere, izan ziren bai aterkiaren laguntzaz eta mendiko botak jantzita kantuan egitera atera zirenak. Herriko ikastetxeetako ikasle gehienek aterpean abestu behar izan zuten martitzenean. Goiko argazkietan, ezkerrean Aranzadi Ikastolako Batxilergoko ikasle batzuk eta eskuman San Martineko ikasle talde bat.



ENPLEGUA LORTZEKO IKASTAROA KZ-GUNEAN

Enplegu bat aurkitzeko orduan Internetek eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutzeko doako ikastaroa izango da Irizar Jauregiko KZGunean. Aipatutako ikastaroa datorren astean, otsailaren 13an eta 14an izango da, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Plaza mugatuak dira eta beraz onena lehenbailehen izena ematea duzue interesatuok. KZGuneak, era berean, doako informatika ikastaroak eskaintzen ditu Barrenkalea 33ko bigarren pisuan. Edozein argibide-tarako, 943 76 73 24 telefonora dei dezakezue.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

CLINICA DENTAL BERGARA

HELBIDE BERRIA:
Bidekurutzeta 36, behea

Tel.: 943 76 05 77

• Odontologia helduendako eta umeendako • Hartz-protesia • Estetika eta zuntzak
• Inplanteak eta kirurgia • Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentip

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak

MINGAINARITIRAKA



**Kristina
San Martin**

SUPER BM DENDAKOA

Informazio Zientzietan lizentziaduna da Kristina (28 urte), Publizitate adarrean, hain zuzen. Arrasateko Okendo Kirolak dendan jardun zuen lanean, ia urtebetez, eta joan den abuztua ezkerro Super BMn dihardu, kutxazain lanetan.

Emakume ala gizon gehiago ibiltzen da erosketak egiten?
Batez ere, emakumeak ibiltzen dira, nahiz eta elurra egin duen egunetan gizon asko etorri den.

Eurotan ala pezetatan pentsatzen duzu?

Ahalegintzen naiz eurotan pentsatzen, baina egunero ikusten dudanez, jendeak ez dauka horretarako ohiturarik...

Laneko gauzarik onena eta txarrena?

Onena, etxetik gertu lan egiten dudala. Eta txarrena, ordutegia.

Zuenean, etxerako erosketak nork egiten ditu?

Amak. Batzuetan laguntzen diot, baina gehienetan amak.

Lanbidea aldatzekotan, zer izan nahiko zenuke?

Publizitatearekin lotutako lanbideren baten edo bestela lan kontratuekin-eta, enpresek nahi dutena egiten dute-eta.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin irtetea gustatzen zait.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

El gen (Michael Cordy)/*Tesis*/Amparanoia.

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Azala; titularrak irakurtzen ditut lehenbizi.

Eta zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Iraken gerrarik ez dagoela, ezta beste inon ere.

San Blas opilik jan duzu?

Bai, etxean jan dugu, amak ekarrita.

Parrandazalea zara?

Bai. Durangoko giroa atsegin dut gehien, askotan joaten gara.

Sagardotegietara joateko asmorik bai?

Ea lagunok taldetxoak osatzen dugun joateko...

Janari eta edari bat?

Coca-Cola eta pastelak; gozozalea naiz oso.

Kolore bat? Gustuko jantzi bat?

Kolorea, urdina. Eta prakak janztea gustuko dut.

Loterian jokatzeko duzu? Milioi bat euro irabaziz gero?

Batzuetan jokatzeko dut. Australiara joan nahiko nuke.

Zer egingo du Realak aurten?

Ea liga irabazten duen...

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Ibon Gantxegi

EGIPTO / 2002ko abuztuaren

Neskalaguna eta biok joan ginen Egiptora aurreko udan, antolatutako bidaia baten. Egia esateko, bidaiaren hasiera ez zen batere atsegina izan, hegazkineko pilotuak Kairon egindako lurperatzearekin suso ederra hartu genuen-eta. Hala ere, handik aurrera primeran ibili ginen; Egipto ikaragarri gustatu zitzaigun.

Lehenbizi, lauzpabost egunean Kairon ibili ginen. Sekulako bizitasuna du hiri hark. Hango jendetza eta zirkulazioa zoratzeko modukoak dira. Bestalde, gauza asko dago ikusteko han. Gizeh-ko piramide handiak, Keops-en, Kefren-en eta Mikerinos-en omenez eraikitakoak, ederrak dira benetan. Piramideen inguruan misterio handia dago, eta oraindik ez dakite zehatz-mehatz zelan eraiki zituzten. Piramideetatik oso gertu Esfingearen estatua dago. Turista mordoa ibiltzen da han inguruan, eta esan beharra dago segurtasun neurri handiak hartzen dituztela hango poliziaiek, turismoaren kontrako atentatuen beldur direlako. Izan ere, duen kultura aberastasunagatik turismoari etekin handia ateratzen dion herrialdea da Egipto. Monumentuak eta museoak ez ezik, Kairoko kaleko giroa ere ikustekoa da. Bazarrean, esaterako, jende asko ibiltzen da, eta denetik topa daiteke han.



“Sekulako bizitasuna du Kairok. Hango jendetza eta zirkulazioa zoratzeko modukoak dira”

“Nilon zeharreko bidaia egin genuen, Luxor-etik Asuan-era; oso bidaia atsegina benetan”

zuten, eta tokiz aldatu behar izan zuten, Asuango presak lurpean laga behar zuelako. Azken egunak Urgadan egin genituen, Itsaso Gorrian. Oso turistikoa eta urpekariendako toki gomendagarria oso.

EDU MENDIBIL



Ibon Gantxegi, Gizeh-ko piramide famatuak atzean dituela.

2 XUXU
HARTU
ORDAINDU 1

SAN PEDRO 14 TEL. 943 76 07 55

*Lurrindegia
Edertze aretoa*
alga

Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

**NEODEPILAZIOA: LASERRA ILEA KENTZEKO
DENA, MEDIKUAREN
KONTROLPEAN**

DepiClub-en ez dugu tratamendu magikoetan sinesten. Izan ere, ikerketā pertsonalizatu baten bitartez diagnostika dezakegu zure arazoa, hala, modurik egokienean tratatzeko. PROFESIONALTASUNEZ.

DEPI CLUB
Grupo Estética

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

FUTBOLA

Euskal Ligako Bergara KEko gazte taldea Galdakaoren aurka, zapatuan, Agorrosinen

Bergarrek galdu egin zuten aurreko zapatuan Zornotzan (2-0) eta hamabigarren daude sailkapenean

EDU MENDIBIL

Bihar, zapatua, Euskal Ligan diharduen Bergara KEko gazte mailako taldeak Galdakao hartuko du Agorrosinen, 16:00etan. Fernando eta Jabi Oregik zuzentzen duten taldeak beharrezkoa du irabaztea, sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko.

Bergara aurreko denboraldian igo zen Euskal Ligara, eta zera dio Fernando Oregik: "Oso kategoriazaila da, maila handiko taldeei aurre egin behar diegulako. Nahiko justu gabiltza, talde gehienak gu baino hobeak direlako. Hala ere, lanarekin eta diziplinarekin gogor borrokatzen dihardugu eta pozik nago jokalariek erakusten dabiltzan jarrerarekin; ez dago gehiago eskatzerik".

Euskal Ligan 16 taldek dihardute lehian. Dagoeneko 19 jardunaldi jokatu dira, eta Arenas dugu sailkapeneko liderra, 37 punturekin. Bergara hamabigarren tokian dago, 20 punturekin, Barakaldoren atzetik (25 puntu) eta Santa Maria Vitoria (18), Galdakao (17), Zarautz (15) eta Asti Leku (12) taldeen aurretik. Bergarak bost partidu irabazi, beste bost berdindu eta gainerako bederatiak galdu egin ditu.

Biharko partiduak, orduan, berebiziko garrantzia dauka etxe-



Argazkian, joan den urtarrilaren 18an Sporting Herreraren aurka irten zen hasierako hamaikakoa.

koendako. Bergarak urrats garrantzitsua eman dezake azken postuetan dauden taldeekiko alde handitzeko. Gabonetako Txapelketan lesionatu zen Jon Irazabalek ez du jokatu.

Esan bezala, Bergarak 2-0 galdu zuen zapatuan Zornotzan. Ez zuten partidu onik egin. Etxeko azken partiduan, berriz, launa egin zuten Lagun Onak taldearen aurka. Igor Lete, Imanol Cabani-

llas, Karmelo Gallastegi eta Unai Agirre izan genituen bergararren golegileak egun hartan. Bihar bisitari izango den Galdakaoren aurka 0-0 egin zuten joaneko partiduan.

Euskal Ligako taldea

Jokalaria	Minutuak	Goal
Atezainak		
Ander Sesma	1.505	
Iñigo Ibartzabal	115	

ATZELARIAK

Andoni Ibaibarriaga	1.335
Txomin De Vega	998
Mikel Rodríguez	935
Jon Irazabal	1.170
Mānex Altuna	176
Asier Arbulu 810	
Karmelo Gallastegi	1.197

ERDILARIAK

Unai Agirre	1.490
Aritz Oregi	340
Ibon Eraña	1.128
Iñigo Albistegi	575
Javier Carrero	498
Ander Santamaria	417
Ibai Igartza	934
Iñaki Elkorobarrutia	482
Jon Urteaga	427
Mikel Juaristi	266

AURELARIAK

Imanol Cabanillas	1.140
Beñat Pérez	692
Igor Lete	862
Aitor Baz	118
Aitor Marauri	15

Oharra: Bergara-San Marcial (14. jardunaldia) partiduko datuak falta dira.

AITOR URIZAR

De Benito amateurrekin ibili da lehen aldiz ziklokrosean

E.M.

Iñaki De Benito Calvo bergarra (19 urte) amateur mailako txirrindulariekin lehiatu da aurtengo ziklokros denboraldian. David Seco, Zuhaitz Ayuso, Haitz Ortiz, eta abarrek asko ikasi duela dio Iñakik.

Amañtu berri den denboraldian 17 lasterketa egin ditu Iñaki De Benitok; gehienak, Kantabrian, Asturiasen eta Euskal Herrian. Hirugarren aldiz egin du Iñakik ziklokros denboraldia, eta aurtun, amateur mailako txirrindulariekin batera indarrak neurtzea tokatu zaio. Zalantza barik, ez du lan erraza izan: "Oso ezberdina da norberaren adinekoen aurka korritzea edo horrenbesteko esperientzia duten Seco, Ayuso, eta abarrekin batera ibiltzea. Lasterketa gehienak oso gogorrak egin zaizkit, baina asko ikasteko

aukera izan dut, eta horrekin geratzen naiz, hurrengo urteotarako baliagarri gertatuko zaidalakoan. Gogorra izan den arren, oso gustura ibili naiz".

Ziklokros denboraldia egin duen herriko txirrindulari bakarra izan da Iñaki. Oso gogoko du espezialitate hori: "Errepide denboraldiari begira, primeran dator kit ziklokrosa. Egia esateko, aurtun ez dut askorik prestatu ziklokrosa, baina nahiko ondo ibili naizela esango nuke. Hiruzpalau lasterketatan lehen hamabosten barruan sartu naiz, eta pozik nago egindakoarekin. Gainera, lehen esandako moduan, maila handiko txirrindulariekin, benetako espezialistekin, asko ikasten da. Hori izan da onena".

Abenduan, Aizarnazabalen jokaturako Gipuzkoako Txapelketan hirugarrena izan zen 23 urtetik azpiko mailan eta urtarrilaren 12an, 36. postua eskura-

tu zuen Espainiako Txapelketan, Sotondrion (Asturias).

MARTXOAN, ERREPIDERA

Orain arte Lokatzako gazte taldean ibili da Iñaki, eta aurtengo denboraldirako amateur mailako Debabarrena taldearekin fitxatu du. Iñakirekin batera, Iñigo Larrañaga eta Zigor Medina bergararrak ere Eibarko taldean izango dira. Martxoan hasiko da amateur mailako denboraldia, eta Gorlako Igoera izango da lehenbiziko probetako bat.

Zera esan digu Iñakik: "Gorlako Igoeran parte hartu nahiko nuke, baina aurtun mendatea bi aldiz igo behar denez, gogorregia izan daiteke proba. Dena dela, mendian gora ibiltzen naiz ondoren, 56 kilo besterik ez dut pisatzen-eta. Edozelan ere, lehenbiziko urtea amateurretan oso gogorra izaten dela esan didate lagun batzuek".



Iñaki De Benito 36. sailkatu zen Espainiako Txapelketan, Asturiasen.

ARKAITZ RUIZ



Senior mailako taldeak Gasteizko El Pilar taldeari irabazi zion zapatuan, 35-37.

ARTXIBOA

Tenis Txapelketa hasiko da otsailaren 22an (zapatua)

E.M.


Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako Tenis Txapelketa jokatu da Bergaran otsailaren 22tik apirilaren 27ra bitartean. Txapelketan izena emateko epea otsailaren 19ra arte egongo da zabalik.

Tenis Txapelketa Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarria izango da, azken urteotan moduan. Hortaz, txapeldunak 12 puntu eskuratuko ditu, txapeldunordeak 10 puntu, hirugarrenak 9 puntu eta laugarren sailkatzen denak, 8 puntu. Era berean, final-laurdenetara iristen diren jokalariek seina puntu lortuko dituzte.

Partiduak Labegaraietako tenis pistan jokatu dira, hiru setera. Partaide kopuruaren ara-

bera bi edo hiru talde osatuko dituzte. Lehen fasea liga erara jokatu dute eta bigarren fasean kanporaketak izango dira. Bigarren fase horretan, zortzi jokalaririk onenak izango dira lehian. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, behin partiduen egutegia zehaztu eta gero, agindutako egunean norbaitek jokatzeo arazoren bat izanez gero, aurkariarekin ados jarri behar da; betiere, aurrez Kirol Zerbitzuan abisua emango du.

IZENEMATEA, OTSAILAREN 19RA ARTE
Izenematea Bergarako Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67) egin behar da, otsailaren 19a baino lehen. Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu behar dituzte Tenis Txapelketan parte hartzearen eta gainerrakoez, berriz, 15 euro.



ARTXIBOA

Txapelketako partiduak hiru setera jokatu dira.

ESKUBALOIA

Senior mailako mutilek Elgoibar hartuko dute bihar Labegaraietan

Euskadiko Txapelketako sailkapenean hamabigarren dago Edu Orgazen taldea

E.M.

Bergara KEko senior mailako mutilen taldeak Elgoibarren aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 17:15ean. Azken postuetatik ihes egin nahian dabilta bergararrak.

Joan den zapatuan Gasteizen El Pilar taldeari irabazi ondoren (35-37), Euskadiko Txapelketako sailkapenean hamabigarren dago mahoneroak. Sailkapeneko azken biak mailaz jaitsiko dira eta baliteke hirugarren talde batek ere maila galtzea. Hala, bergararren helburua gutxienez hamakargarren postuari eustea da, Edu

Orgazen hitzetan: "Atzeko aldean lauzpabost talde gelditu gara, eta gogor borrokatu behar dugu liga amaitu bitartean. Hala ere, mailari eusteko moduko taldea daukagula uste dut".

Liga amaitzeko 10 jardunaldi falta dira, eta geratzen diren partidu guztiak finalak izango dira bergarrendako. Hasteko, sailkapeneko goiko aldean dagoen Elgoibar etorriko da bihar. Joanekeo partiduan bi golegatik galdu zuen Bergarak (32-30). Edu Orgazek azpimarratzen duenez, "betiko moduan, partidua irabazten ahaleginduko gara, eta, gure jokoa egiteko gauza bagara, posible ikusten dut puntuak etxean geratzea. Zaleen laguntza ere

garrantzitsua izan daiteke. Ea jendea kiroldegira etortzen animatzen den, giroa berotzea ondo etorriko zaigu-eta. Jokalariek eskertuko dute, ziur".

SENIOR NESKAK ERE ETXEAN

Bestalde, senior mailako nesken taldeak ere etxean jokatu du zapatuan. Xabier Lijók eta Josu Zeziagak zuzentzen duten taldeak galdu egin zuen aurreko zapatuan Bilboko San Adrian taldearen aurka, gol bakar bategatik, 15-16. Nesken faldeak ez du zortea alde. Hala ere, bihar irabazten ahaleginduko dira bisitari izango duten Bera Bera taldearen aurka. Nesken partidua 18:45ean hasiko da.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. A Ze Flaxa	33	13
2. Bayer	31	11
3. Artusamak	29	12
4. Dedo Pafarru	27	12
5. Agirrebeña	18	10
6. Txipiron	18	11
7. TNT	18	12
8. Pirulotarrak	15	11
9. Torrekua	12	13
10. Bildurbarek	10	12
11. Getokuak	7	12
12. Cipote Nucleico	6	10
13. Etengabe	4	11
14. De Ore	0	12

B MULTZOA	P	J
1. Bedarreta	34	12
2. Errotagain	31	12
3. Mongatxurrak	25	12
4. Fac.	22	12
5. Aterpe	20	12
6. Argandolas	19	12
7. Pagomendi	18	12
8. Canalejas	18	12
9. Las putas de Satan	15	12
10. Irubide	12	12
11. Komando Piperrak	11	11
12. Bar Ganbara	10	12
13. Belengua	4	11
14. La Quinta del Buitre	0	11

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Dedo Pafarru-Cipote Nucleico. De Ore

10:30: De Ore-Pirulotarrak. Cipote Nucleico

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Artusamak. Etengabe

10:30: Agirrebeña-Etengabe. Txipiron

11:30: Argandolas-Las putas de Sat. Irubide

12:30: Errotagain-Irubide. Las putas de Sat.

16:00: Belengua-La Quinta. Bedarreta

17:00: Bedarreta-Bar Ganbara. Belengua

18:00: Getokuak-Pirulotarrak. Bayer

19:00: Cipote Nucleico-Bayer. Getokuak

Pilota partiduak, gaur eta domekan, Udal Pilotalekuan

E.M.

Bergara KEko pilotariak Gipuzkako Txapelketan eta Udaberriko Txapelketan murgilduta dabilta. Gaur, egubakoitza, eta domekan, pilota partiduak izango dira Udal Pilotalekuan.

Gaurko jaialdia 19:30ean hasiko da eta hiru partidu jokatu dira: lehenbizi, Gipuzkoako Txapelketaren barruan, infantil mailako lehen bikoteak Beasaingo Burumendi taldeko bikotearen aurka neurtuko ditu indarrak; jarraian, Udaberri Txapelketan, Bergarako lehen kadete bikotea eta Tolosako San Estebangoa izango dira aurrez aurre; eta, azkenik, Euskal Ligako partidua izango da, senior mailan. Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek Zaramaga 4 bikoteari aurre egingo diote. Bikote bergararrak 22-18 irabazi zion astelehenean Zaramaga 3 bikoteari, Bergaran. Par-

tidua astelehenean jokatu zen, zapatuan bertan behera laga behar izan zelako.

Domekan, berriz, beste hiru partidu jokatu dira Udal Pilotalekuan, 11:30ean hasita. Infantil mailako bigarren bikoteak Gaztelekuren aurka jokatu du, Gipuzkoako Txapelketan, eta horren ondoren, Udaberriko Txapelketan, Bergara eta Lizardi Igel-do bikoteen arteko norgehiagoka izango da. Jaialdiko azken partiduan bigarren mailako senior bikoteak Zumarragako Beloki taldea hartuko du, Udaberriko Txapelketan.

KADETE MAILAKO SASKIBALOI DERBIA ZAPATU EGUERDIAN

Bestalde, saskibaloiko partidu bakarra izango da oraingo aste bukaeran Bergaran. Gipuzkoako Ligan diharduten kadete mailako Bergarako bi taldeek elkarren aurka jokatu dute bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 12:00etan.

ELKARRIZKETA

ROBERTO IZAGIRRE/HERRIKO GUTUN ONENAREN SARIA AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETAN

“Bikotekideari idatzitako gutuna da, eta gutunean agertzen den %90 egia da”

MONIKA BELASTEGI

Roberto Izagirrek jaso du aurten ere Herriko Gutun Onenaren saria Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Hirugarren urtez jarraian eskuratu du sari hori. Jaiotzez eibartarra den arren, hamar urte daramatza Bergaran. Aurten idatzi duen gutuna, *Ezustekoa*, bikotekidearekin duen harremanean oinarritu du, ez asmatutako istorio baten.

Pozik jasotako sariarekin?

Bai. Nik uste dut beti ematen duela poza horrelako gauza bat irabazteak. Gutuna idazten diharduzun bitartean agian ez, baina aurkezten duzunean, nire ustez, beti dago saria eskuratzeko itxaropentxo. Bai, pozik nago.

Hiru urtez jarraian jaso duzu Herriko Gutun Onenaren saria.

Uste dut baietz. A ze pëlma da. Ez, broma da. Aurten, pena eman dit jakitea oso bergarar gutxi aurkeztu direla.

Gutunaren muina laburtuko diguzu?

Ez da istorio bat. Iaz, sari banaketako ekitaldian, Ainhoa Agirreazaldegirekin jardun nuen berbetan, eta horixe esaten genuen, normalean idatzi izan ditugula gutun horiek istorio bat asmatzen, eta zergatik ez idatzi benetakoa? Eta azkenean hori egin dut.

Jacara joan nintzen behin, eta mendian nenbilela idatzi nuen. Bikotekideari idatzitako gutuna da, eta gutunean agertzen den %90 egia da, nahiz eta horrelakoetan gauzak pixka bat nobela eran ere egiten diren. Momentu hartan sentitzen nuena idatzi nuen.


Bestalde, aurten ahalegindu naiz beste pertsona batekin erdibana idazten gutuna, baina ez dut lortu. Mundu guztiari oso gauza polita dela iruditzen zaio, baina ez da inor animatu. Benetako sentimenduak papereratzea kostatu egin zaizu, jakinda, gainera, bikotekideak ez ezik, beste jende askok ere irakurriko duela gutuna?

Ez bereziki. Dena dela, pixka bat landuta ere badaukagu bikotean gure sentimenduak barruan ez ezkutatzea.

Gutunaren izenburua *Ezustekoa* da. Eta gutuna ere horrelaxe hasten da: “Kaixo polita. Ezustekoa, eh?”

Maitasun adierazpenak gutxi eta ezusteko bihurtzen dira?

Ezustekoa da, gutunean agertzen den moduan, gosaltzeko



MONIKA BELASTEGI

orduan katiluaren ondoan gutun bat aurkitzea. Normalean, nik uste dut zerbait idazten denean ez dela gauza polit bat esateko, baizik eta haserre zaudelako edo ohar bat lagatzeko.

Gaur egun, bikotekidearendako etxean zerbait idatzita lagatzea zera da: *Erosi ogia ahaztu egin zait-eta*. Edo antzeko zerbait. Horregatik, horrelako amodio gutun bat jasotzea ezustean harrapatzeko modukoa da.

Ni, behintzat, erabat ezustean harrapatuko ninduke halako gutun bat jasotzeak.

Sarietara itzuliz, hirutan Herriko Gutun Onenari saria jaso duzu, beste behin bigarren saria, eta accessita beste baten. Noiz lehen saria?

“Istorioak asmatzen idatzi izan ditugu gutunok, eta zergatik ez benetakoa idatzi?”

Zaila da. Oso zaila iruditzen zait lehen saria irabaztea. Orain arte irabazi duten guztiak irakurri ditut, eta batzuek oso maila altua zutela iruditu zait.

Iazkoa, Bertol Arrietarena, izugarri gustatu zitzaidan. Bere sinpletasunean, izugarritzko pasada izan zen. Esan bezala, oso maila altua dela uste dut, eta ez da nahikoa ideia bat izan eta lantzea. Konturatzen bazara, gainera, lehiaketa horretan urte bakoitzean irabazi duena oso ezberdina izan da: batean, berorika idatzita, bestean, hika...

Bestalde, literatura lehiaketak oso erlatiboak dira. Uste dut errazagoa dela horrelako lehiaketa baten irabaztea aurrez epaimahaia nork osatzen duen jakinda.

Baina, bueno, nik uste dut azkenen idazten dela gustukoa duzulako, lehiaketa aitzakiatzat hartuta. Gero, irabazi edo ez... Dena dela, datorren urtean ere aurkeztuko zara lehiaketara?

Seguru aski, ez. Uste dut aurtengo azkena izan dela. Ez bada azkeneko momentuan zerbait... Baina ez dut uste.

Gutunaren jarraipena

(1. orrialdetik dator) damuren batzuk agertzen zaizkit, gogoz beteta dago bizitza, baina horiek guztiak akatsak eta asmatutakoek osatzen dute hain maite dudun egungo egoera, gaitzerdi beraz. Aurrera begiratuta, ordea, buruan bueltaka ditudan hainbeste asmok euren zentzu osoa galduko lukete zeurekin batera zertu ezean. Lasai, ez zaigu halakorik gertatuko! Eta horrela, beharbada, aguretututakoan elkarrekin pasatutakoak bururatu, irrifar bat eskaini eta eskutik helduta, Xalbadorri ikasle nion bertso zahar honekin gozaratuko dizut entzumena.

Andrea ez dut nik hartu gero menturan neguaz pentsatu gabe maitatu dut udan, Bainan oraintxe jartzen ari naiz ni dudun gero ta maiteago zergatik zaitudan.

Zure egin nauzu muina ta hezurra hola pasako zela banuen beldurra. Orain ere zurekin bi beti gostura zutan kusi nuena ez baitzen gezurra.

Bukatu egin beharko dut eskutitz hau; jakina. Sentitzen dudun maitasuna mugagabea izanda ere, epistola honi mugaren bat jarri beharko diot, baina ziur egon zaitezke hau irakurtzen duzun bitartean, nagoen tokian nagoela, barrenak har dezakeen baino eskerron haundia goa sentituko dudala zure begien irudia neure buruan osatzen denean. Horregatik, orain arte eman eta konpartitutakoagatik eta hemendik aurrera elkarrekin biziko dugun guzti horregatik –bizitzaren onenak datozenak izango baitira azken finean –musurik samurra na nire laztanarendako.

Bueltara arte!

Pd: Ongi etorri masajea neure kontura...

“Politagoa da gutunak eskuz idaztea ordenagailuz baino”

Orain arte idatzi duzun gutunik biribilena?

Idatzi nuen lehenengoa, idaztera ausartu nintzelako. Idazteko orduan inspiratzeko toki bat? Egoera bat? Edo une bat?

Toki bat, mendi ingurua; egoera bat, egunerokotasuna eta une bat, eguneko edozein.

Gutunak eskuz, ordenagailuz ala idazmakinez?

Eskuz politagoa da. Baina lehiaketara aurkezteko orduan ordenagailuz.

Zer nahiago, gutuna jasotzea ala telefono deia?

Gutuna jasotzea. Nire ustez, gehienok nahiago dugu hita.

Amodiozko idatzi gustukoena?

Andoni Egañaren *Irrifarraren bertsoa*.

Eta abestia?

Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste abestia*.

Maitasunagatik duda barik egingo zenukeena?

Pertsona batekin eguneroko bizimodua konpartitzea.

Eta inoiz egingo ez zenukeena?

Ez dakit.

Zer nahiago, maitatzea ala maitatua izatea?

Errazagoa da maitatzea, eta maitatua sentitzea oso polita da. Nik biak erdi eta erdi nahiago ditut.

Sexua maitasunarekin ala barik?

Ahal bada, maitasunarekin. Uztartuta baldin badaude politagoa da.

San Balentin zelan ospatuko duzu?

Jardunen kontura askaria egiten.

E, TXO!

GUREGAIK/ ESKIA

MUSEOLOGIAKO IKERKETA
BEKAK EMANGO DITUZTE

Arabako Foru Aldundiak emango ditu, eta lizentziaduna izatea beharrezkoa da beka horiek lortu ahal izateko. Deialdi horren helburua da Arabako Foru Aldundiaren museoekin lotutako ikerketa-proiektuen bitartez museologiako ikerketa sustatzeko beka ematea. Banaka edo taldeka eska daitezke beka horiek.

Otsailaren 26ra arte dago eskaerak aurkezteko epea, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean edo Kultura Sailean.

ARTIUM IKERKETA
BEKARAKO DEIALDIA

Beka horren helburua da gaur egungo artearen gaineko dokumentu-ondarearen gaineko informazioa ikertu eta batzea. Beka hori lortzeko beharrezkoa da Arte Ederretan, Artearen Historian edo Bibliotekonomia eta Dokumentazio-ko diplomadun edo lizentziaduna izatea.

Martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira eskaerak, Artium museoko Liburutegi eta Dokumentazio Sailean, Gasteizko Frantzia kalean.

GAZTESAREA EGITASMOA
AURKEZTU DUTE

Joan zen zapatuan aurkeztu zituzten hainbat esparrutako gazteek Gaztesarea taldea eta egitasmoa. Aurkezpenean azaldu zuten, euskal gazte mugimendua eraikitzeko eta garatzeko baliabideak eskaini eta lanabes izan nahi du egitasmo horrek. Besteak beste, martxoaren lehen, Interneteko ataria estreinatuko du Gaztesarea taldeak.

Neguan, gazte asko joaten da eskiatzera

IKER BARANDIARAN

Negu partean, ibarreko gero eta gazte gehiago joaten da eskiatzera. Sasoi horretan, asteburuetan, gazteen hutsunea nabaritzen da tabernetan. Asko eta asko asteburuetan eskiatzera joaten dira.

Azken urteotan, negu partean, ibarreko gero eta gazte gehiago joaten da eskiatzera, eta hutsunea nabaritzen da tabernetan.

Gazte asko bere kasa joaten da eskiatzera. Gehienak Aragoi aldera joaten dira: Formigalera, Candanchura eta Astunera, hain zuzen ere. Beste batzuek, osterara, Frantzia aldera jotzen dute: Gavarnie, Luz Ardiden edo La

Mongiera, besteak beste. Egun pasa joateko asmoa dutenek Valdezcarayra joateko aukera ere badute. Bergaratik, pare bat orduan pistetan egon zaitezke.

Eta taldean joatea nahiago baduzu, Pol-Pol elkarteak eski irteerak antolatzen ditu urtero. Taldean joanez gero, gainera, egonaldia merkeagoa da.

ESKI PISTEN EGOERA

Horren harira, eski pisten egoerari gainbegiratu egin diogu Interneten. Martitzenean jaso genuen honako informazio hau: Candanchun 14 erremonte eta 20 pista zeuden zabalik eta Panticosan, berriz, 13 erremonte eta 34 pista. Astun, osterara, astebururako zabalik egongo da.



ARTXIBOA

Batik bat, Aragoiko eski pistetara joaten dira gazteak.

LOTSABARIK/ Eneritz Eguren

“Burugogorra naizela esaten didate”

A.I.

Alaia eta puntuala dela frogatu ahal izan dugu; izan ere, jarritako hitzorduan puntu-puntu azaldu da, irribarretsu. Jenio bizikoa ere ba ei da, eta, esaten diotenez, baita burugogorra ere.

- Txikitan, zer izan nahi zenuen? Masajista.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua? Baliteke ezkondata egotea eta seme-alabak izatea; dena dela, ez dut horrelakoetan pentsatzen.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Amak nire logela ordenatzeko, ordenatuagoa izan behar naizela esaten dit.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Esaten didaten guztiari baietz esatea, eta gero gerokoak. Egia esan, baina, gurasoek ez naute kontrolatzen, eta ez daukat horrelako taktika beharrik.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Osasunari eta zoriontasunari.

• Zure bertute bat?

Pertsona alaia naizela eta entzuten dakidala.

• Eta hutsune bat?

Haserretzen naizenean, jenio bizikoa naiz; burugogorra naize-

la ere esaten didate, baina niri ez zait iruditzen hori horrela denik.

• Zerk amorratzen zaitu?

Pertsona burugogorrek eta sekretuak gordetzen ez dakitenek.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

(Denbora luzez zer erantzun ez dakiela egon eta gero...) Ezpainak-edo...


• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Irribarreari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko? Ezer ere ez.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

A! Hori sekretua da, horrelakoak ez dira kontatzen.




ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Erizain laguntzaile • ZALETASUNAK: Lagunekin irtetea eta musika entzutea • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak
LIBURU BAT: 'El sombrero de tres picos', Pedro Antonio de Alarcón-ena • FILM BAT: 'La boda de mi mejor amigo' • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARREN ETXETIK



Gizonak alde batean eta emakumeak bestean. Joxe Patxi Azkarate zuzendaria, emakumeekin solasaldian.

Primeran bazkaldu ondoren, tertulia luzea izan zuten San Joxepeko abeslariak.

“Zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz...”

EDU MENDIBIL

San Joxepe abesbatzako lagunak kalez kale kantuan ibili ziren martitzenean, Santa Ageda bezperan, eguraldi txarrari aurre eginez. Azken urteotako ohiturari ertsiz, herriko kaleetan barrena

ibilbidea egin zuten, eta, horren ondoren, bazkaltzeko elkartu ziren San Joxepen bertan.


10:30ak aldera irten ziren kantuan, Moja Zaharretatik, hain zuzen ere. Ohiko makilen laguntzarekin eta baserritar jantzita, Santa Agedaren eta San Martinen koplak eskaini zituzten herriko

hainbat tokitan. Besteak beste, Mizpirualde egoitzan, Mariaren Lagundian, Bidekurutzetan (Leturia harategikoek hamarretakoa eskaini zieten), San Martin plazan, Barrenkalean, Simon Arrietan eta Fraisko zurin abestu zuten. Victoriano Gallastegi alkatea haiekin elkartu zen pla-

zan, eta eskerrak eman zizkien giroa alaitzeagatik. Eguraldi txarrak ez zituen kikildu abeslari beterranoak, eta goiz osoan umore ezin hobea erakutsi zuten.

SAN JOXEPEKO BAZKARIAN, 34 LAGUN San Joxepen egindako ondorengo bazkarian 34 lagun egon ziren.

Primeran bazkaldu ondoren, bazkaloste luzea izan zuten, eta 18:00ak aldera arte tertulian jardun zuten. Eta, jaieguna biribiltzeko, Natalio Juaristi abesbatzako kide zaharrenak (90 urte egin zituen azaroan) oroigarri bana jaso zuten abesbatzaren eta Susana Izaren partetik.



Nagusiendako ikastaroak KZGunean

Irizar jauregiko KZGunean nagusiendako Informatika ikastaroak eskaintzen dituzte. *Nagusiweb* ekimenari esker, 50 urtetik gorakoek Interneten nabigatzeko eta posta elektronikoa erabiltzeko aukera daukate. Ikastaroak 10 ordukoak dira, eta interesatuek KZGunean eman dezakete izena ikastaroetan parte hartzeko. Hilero eskaintzen dituzte nagusiei zuzendutako ikastaroak. Argibide gehiago, Barrenkalea kaleko 33an (lehen solairuan) edo 943 76 73 24 zenbakian.

LABUR

Enkarterrietara irteera datorren otsailaren 26an

San Joxepe erretiratuaren elkarrekin Enkarterrietara joateko irteera iragarri du datorren otsailaren 26rako. Besteak beste, Sopena eta Balmaseda bisitatuko dituzte. Irteera egun osorako izango da, eta oraindik zehaztu gabeko tokibaten egingo dute bazkaria. Irteera 09:00etan izango da autobus geltokitik, eta itzulean, berriz, 20:00ak aldera. Interesatuek San Joxepen eman beharko dute izena otsailaren 17a baino lehen. Argibideak, 943 76 30 09 zenbakian.

MIZPILDI



OKINDEGIA



gizon & emakume


Enkarterrietara 26
BERRIGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bitxitarrietan 16 BERRIGARA
TF. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZBAR

Non dago pilotaleku hau?

GALDEDEBALDE

1.

Luis Mari Agirrearen arabera, zenbat euri jaso da Bergaran azken zazpi egunotan?

- A/ 243 l/m2.
- B/ 263 l/m2.
- C/ 312 l/m2.

2.

Zein da Roberto Izagirrek idatzitako eta sari-tu duten amodiozko gutunaren izenburua?

- A/ Zu eta biok.
- B/ Ezustea.
- C/ Bihotz mina.

3.

Zein taldetan korrituko du aurten Iñaki De Benito txirrindulari bergararrak?

- A/ Debabarrena.
- B/ Ulma Cegasa.
- C/ Olarra Ercoreca.

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Xabier Agirre

EDU MENDIBIL

Xabier Agirrek (Bergara, 1955) Arte Ederretako ikasketak egin zituen Leioan eta Parisen, eta 1988a ezkerro Leioako Fakultateko irakasle da. Pintura Teknologia irakusten du. 12 urterekin sinatu zuen lehenbiziko margolana, eta ordutik hona makina bat lan egin ditu. Egunotan Xabier Agirrearen azken lanak ikusgai daude Gasteizko Felisa Navarro galerian: "Parisen egon nintzenean abstrakzioa nagusi bazen ere, une honetan nire pintura nahiko figuratiboa dela esango nuke. Gure izadiak sentiarazten dizkidan gauzak islatzen saiatzen naiz". Gazte denboran pintore inpresionistak eta fauvistak gogoko zituen, "arte garaikidearen atek zabaldu zituzte-lako", eta gaur egun Corot frantziar-raren edo Constable ingelesaren lanak berraztertzen dabil, "naturarekin zeukaten lotura isil eta zintzoa" atsegin duelako.

Esan bezala, lanean irakaskuntza eta pintura tartekatzen ditu: "Osagarriak dira eta, gainera, fakultatean, ikerketaren esparruan buru-belarri jarduteko aukera daukat. Pinturatik bakarrik bizi izatea oso zaila da".

"Nire margolanetan izadiak sentiarazten dizkidan gauzak islatzen saiatzen naiz"



ARTIBOIA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANE ERAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ane! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Elosua (San Andres). Eskumakoa, Ubera (San Paulo) / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ram esnea
Litroko brika.

0,62 €
103 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



HERRIKO ETXEA

Eguneko menua+kafea: **6,95** euro
Gaueko menua: **7,00** euro

Eta pintxoak **0,70** euro!

Zatoz!


Bidekurutzeta 23 BERGARA Tel. 943 76 55 23

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



BERGARA
Maddi Basterra
Otsailaren 8an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Olatz.



BERGARA
Mikel Mengual
Otsailaren 9an 8 urte.
Zorionak! Familiakoak;
berezik, Ander.



BERGARA
Asier Pérez
Otsailaren 10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta familiakoak.



BERGARA
Andoni Gallastegi
Otsailaren 7an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Itziar Mujika
Urtarrilaren 31n urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Gorka Kortabarria
Otsailaren 7an 5 urte.
Urte askotarako eta
musu bat! Etxekoak.



BERGARA
Maria Agirrezabal
Otsailaren 8an 5 urte.
Urte askotarako eta
musu bat! Etxekoak.



BERGARA
Aitor Lete
Otsailaren 9an 25 urte.
Zorionak! Marisa, Martin
eta etxeok.



BERGARA
Aizpea Gabilondo
Otsailaren 7an 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Olatz Urkiola
Otsailaren 8an 27 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.




BERGARA
Josu Goñi
Otsailaren 7an 16 urte.
Urte askotarako!
Lagun berezi bat.



BERGARA
Miren Ignacio
Otsailaren 9an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Naiara.



BERGARA
Jone Murgiondo
Otsailaren 6an 3 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Uxue eta lagunak.



BERGARA
Danel Murgiondo
Otsailaren 6an 3 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Uxue eta lagunak.



BERGARA
Aritz Oiarzabal
Otsailaren 13an 5 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Nora, Ekhi eta Aroa.

Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**OILAGORRA
TABERNA**
Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

IKUSBI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

Bolu
liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta lumatxoak
Koldo Eleizalde 1. Bergara. Tf. 943 76 70 60

 DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



SOINUZ BLAI

Musikarekin busti nahi?

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

**Eguenetan eta egubakoitzetan,
21:15ean.**

Aurkezleak
Maite Albes
Ugutx Usandizaga

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 7a / 145. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


Errefuxiatu sahararrendako 635 kilo janari eta 800 bat euro batu dituzte

AINZANE IRIZAR

Anelkarrek eta Udalak bultzatutako kanpainak oso erantzun ona izan du herritarren aldetik. Guztira, 635 bat kilo janari eta 800 euro batu dituzte herrian, saharrei laguntzeko. Oraingo astean bidaltzekoak ziren janari hori guztia sahararren Tindouf-eko kanpamentura.

Urtarril erdialdera jarri zuten abian Saharako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina Antzuolan. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Euskadiko Lagunen Elkarteak (SEAD) abiarazi zuen, eta Udalak eta Anelkarrek bat egin zuten kanpainarekin. Kanpaina horren helburua zen, alde batetik, janaria batzea, errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bidaltzeko; eta, bestetik, dirua batzea, janari hori guztia Tindouf-eko kanpamentura bidaltzeko.

Herriko hainbat dendatan, udaletxean eta Herri Ikastetxean janari ugari batu dute: 635 kilo janari, hain zuzen ere. Batez ere, arroz, olio, lekaleak eta azukrea batu dituzte. Hala, Antzuolako Udalak eta Anelkarrek laguntza eskaini duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.



Hainbat herritar ibili dira janaria batu eta kaxetan sartzen.

Bestetik, janari hori guztia Saharara bidali ahal izateko, kamioiak erosi beharra daukate SEADeko kideek; horretarako, dirua batu dute Anelkarrekoek herritarren artean; 800 euro, guztira. Udalak, bestetik, 600 euroko dirulaguntza onartu zuen.

AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO MOZIOA
Kanpaina horren barruan, janaria eta dirua batzeaz gainera, hainbat ekintza egin dituzte, hala nola: Sahararen gaineko hitzaldia egin zuten orain dela bi aste, baita argazki erakusketa ere. Atzo (eguna), bestalde, Euskadiko

Lagunen Elkarteak aurkeztutako mozioa onartzekoa zen udalbatzarra otsaileko osoko bilkuran. Mozio horretan, besteak beste, Saharako herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatu eta Marokoren okupazio ilegala salatzen da.



Elurrarekin, hainbat arazo

Aspaldian egin duen elurterik handiena egin zuen aurreko astean. Egubakoitz goizean, zurituta ikusi genituen Antzuola eta inguruak. Egunean barrena, gainera, elurra erruz egin zuen.

Arratsalderako elurra sendotuta zegoen, eta horrek hainbat arazo sortu zituen, Deskargako mendatean, batik bat. Herri barruan, berriz, Antzuolako Udaleko hainbat langile ibili ziren lanean, palarekin eta elurra kentzeko makinarekin./A.I.

LABUR

Diru dezente batu dute Hazparneko Ikastolarendako

Herritarren artean, guztira, 716 euro batu dituzte Hazparneko Ikastolari laguntzeko Horietatik, 90 euro Sehasako egutegiak saltzen batu dituzte.

Bestalde, Udaleko Kulturabatzordeak dirulaguntza eman dio ikastola hari; 1.500 euroko laguntza, hain justu.

Datorren egunean hitzaldia izango da Herri Ikastetxean

Ume txikien eskolaratze prozesuaren gaineko hitzaldia izango da Herri Ikastetxean datorren egunean, hilaren 13an, 18:30ean.

Rosa Llorentek egingo du hitzaldia, *Ume txikiaren eskolaratzea: lehen banaketak ber garapenean duen garrantzia* izenburupean.

San Blas eta Santa Ageda ospatuko dituzte asteburuan

Bihar, hilak 8, San Blas eguna ospatuko dute Basaldeen 12:00etan, meza egongo da; eta mezaren ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute.

Domekan, berriz, Santa Ageda ospatuko dute Galantzan. 12:15ean, meza izango da; eta mezaren ondoren egongo da zer jan eta zer edan.

'Goienkaria' berandu iritsi zen aurreko astean

Aurreko asteko elurtea eta beste hainbat gorabehera izan zirela eta, *Goienkaria* garatu banatzeko arazoak izan zituzten. Azkenean, oraingo asteko martitzenera arte atzeratu behar izan zuten aldizkariaren banaketa. Horregatik barkamena eskatzen dizuegu eta ea eguraldiak beste horrelakorik eragiten ez digun.

KIROLA

Gazteen futbol taldea laugarren dago igoera fasean

A.I.

Ondo dabil Antzuolako gazteen taldea aurtengo denboraldian. Bikain ibili zen ligan, eta igoera fasean ere ondo dabil. Saikapenean laugarren daude antzuolarrak, liderrarengandik hiru puntura. Bihar, zapatua, Behobiaren aurka jokatu dute, Estalan.

Denboraldi ona egiten dabilta gazteen futbol taldeko mutilak. Iaz gazteen lehen mailatik bigarrenera jaitsi ondoren, euren maila erakusten ari dira. Ligan aurreneko postuetan ibili ziren, eta igoera faserako sailkatu ziren. Bada, igoera fasean ere ondo jokatzen dabilta, eta laugarren postuan daude, Eibartarrak liderrarengandik hiru puntura; 10 puntu dituzte antzuolarrek eta 13 puntu eibartarrek.

Igoera fasean jokatu dituzten bost partiduetatik hiru irabazi dituzte, bat galdu eta azkeneko partidua, berriz, berdindu. Hain zuzen, Bergararen aurkako derbian berdindu zuten.

Bergarako eta Antzuolako taldeek puntu berak dituzte. Antzuol-



Gazteen futbol taldeak Behobiaren aurka jokatu du zapatuan, Estalan.

larrek behar-beharrezkoa dute hirugarren postua, lehen mailara igo nahi badute.

ERREGIONAL MAILAKOAK, EZ HAIN ONDO Erregional mailakoak ez dabilta gazteak bezain ondo aurtengo denboraldian. Liga jokatzen ari

dira nagusien taldekoak, eta bederatzigarren daude, Aretxabaleta liderrarengandik 34 puntura. Aretxabaletarrek 42 puntu dituzte eta antzuolarrek, berriz, zortzi besterik ez. Oraingo asteburuan, gainera, liderraren aurka jokatu beharko dute.



Santa Ageda eskean DYaren alde

Antzuolako abesbatzako kideak eta herriko txistulariak Santa Ageda eskean ibili ziren, kalerik kale, joan den martitzen iluntzean, Santa Ageda bezperan. Antzuolako DYako lau kide ere abesbatzakoekin batera ibili ziren, izara handia bat eskuan zutela, dirua batzeko; izan ere, Santa Ageda eskean batutako diru guztia herriko DYari laguntzeko izango da, ambulanzia berria erosteko beharrean daude-eta. Bestalde, kintoak ere goizean goizetik ibili ziren kantuan./A.I.

HERRITARRENHITZA/ Jose Mari Ugalde · Erretiratuaren elkarteko presidentea

Erretiratuok elkartuta

Oporraldia pasa ondoren, goazen berriro ere lehengo bideetara.

Mila urteko berri honen hirugarren urtera sartu gara eta bagoaz aurrera; badirudi aldakuntza asko ikusi eta ikasi egin beharko ditugula, baina dagoeneko ohitzen goaz izaera berri honetara, eta ez digu zalaparta gehiegi eragiten.

Baina badatoz aldakuntza batzuk bereiztu nahi nituzkeenak. Uste dut aspaldi honetan denok jakinean jarri gaituztela, erretiratu edo edadeko pertsonen laguntzeko talde asko prestatzen direla, izen ezberdi-

nekin, Consejo de Mayores delakoa, esaterako; gaztelaniaz, eta beste talde laguntzaile batzuk; hori dena onartua izango da.

Baina, azken finean, gure jabetza beteko dutenak Foru Aldundia, Udala eta erretiratuaren elkar-
teia izango dira.

Hiru horietatik, geu, erretiratuok, gara erantzukizun handiena izango dugunak; izan ere, besteek, erakunde horiek,



“Dei egin nahi nieke erretiratu guztiei, elkartera arrimatu daitezen”

lagun egingo digute, baina egon ziur guk egin beharko dugula lana, ezer aurrera ateratzea nahi baldin badugu.

Hemen esaera bat nahiko indartuta jarri dugu: egoitzak gehitu eta edadetuak haruntza bildu; etxean baino hobeto egoten dira toki horietan.

Baina badirudi ekintza horiek aldatzera doazela eta asmoa dagoela ahal diren pertsona

edadetu guztiak etxean edo herrian edukitzeko. Hortaz, herrietako egoitza txiki horiek prestatzen joan beharko dugu.

Eta, era horretan, edonork daukanez azaltzeko gaitasuna, elkartu eta goi mailako erakunde horiei eskaera indartsuago egin beharko genieke. Horrela, geure artean laguntza errazagoa izango da.

Hemendik dei egin nahi nieke erretiratu guztiei, baina bereziki erretiratuak izanda elkarteko partaide ez direnei, gai hauen gainean hausnartu eta arrimatu daitezela herriko erretiratuaren elkartera.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 8
16:00: Antzuola-Behobia (Gazteak)

PILOTA

Otsailak 8 (Udaberri Saria)
17:30: Olalde-Batzokiko (nagus. eskuz)
Ondoren: Olalde-Urnieta (nag. paletaz)

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 1 Antzuola 1 (Gazteak)
Erregional mailakoek zapatuan Amaikak Bat-en aurka jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zen, elurragatik.

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Andazpe (infantilak) . . . 18-5

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko otsailaren 7a / 129. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Azken hiru aldietan moduan, Korrika 13ren lekukoa ez da Elgetatik pasatuko

OXEL EROSTARBE

AEK-k zehaztu du dagoeneko Korrika 13ren ibilbidea. Aurreko hiru aldietan moduan, ez da Elgetatik pasatuko. Hala ere, aurrekoetan moduan, Korrikaren aldeko herri batzardea sortzeko batzarra izango da datorren martitzenean, hilaren 11n, liburutegian.

Apirilaren 4an hasiko da Korrika, Maulen. Eta hamar egun geroago, Iruñean izango du helmuga. Tartean, Euskal Herrian zehar 2.150 kilometro egingo ditu Korrika 13ren lekukoak. Debagoieneko herri guztietatik pasatuko da Korrika, Aramaiotik eta Elgetatik izan ezik.

Korrika Elgetatik pasatuko ez den arren, AEK-k eta Goibeko Kultura Elkarteak Korrikaren aldeko herri batzardea sortzeko batzarra deitu dute datorren martitzenerako. Batzarra 19:00etan izango da, liburutegian, eta herriko elkarteak parte hartzera deitu nahi dituzte. Batzarrean, Elgetan zer egin aztertuko dute.



Haizea, Panaderokua eta Bolatoki tabernetan eta gaztetxean egin gaitzke elgetarrok Korrikaren laguntzaile.

KORRIKA-LAGUNTZAILE KANPAINA

Kanpaina horren helburua Korrika antolatzeko finantzaketa lortzea da. Kanpainen parte hartze-

ko, Korrika-laguntzaile egin gaituen txartela erosi behar dugu. Elgetan Haizea, Panaderokua eta Bolatoki tabernetan eta gazte-

txean bete daiteke txartela. Hamar euroren truke egitasmoan parte hartzen duenak, Korrikari laguntzeaz gainera, Korrika-

Datorren martitzenean izango da Korrikaren aldeko batzardea sortzeko batzarra

Korrika-laguntzaile kanpaina abian dago Elgetan; 10 euro balio du txartel bakoitzak

laguntzaile dela adierazten du txartela eta Korrika 13ren ibilbidean den tximeleta baten pina eskuratuko ditu.

SAN BLASAK ELGETAN

Domekan meza izango da San Blasen

O.E.

Berez San Blas eguna astelehenean izan zen arren, Arantzeta auzoan domekan ospatuko dituzte San Blasak. Hala, 13:00etan, meza izango da San Blasko ermitan. Urtero moduan, ohiturari jarraituz, San Blas opilak eta gozokiak bedeinkatzeko meza izango da. Hortaz, astelehenean parrokiaren zuten bedeinkapenera joaterik izan ez zutenek domekan izango dute horretarako aukera.

Edozelan ere, meza ez da izan domekarako auzotarrek antolatutako ekitaldi bakarra. Arantzeta hurreratzen direnendako, salda eta txorizoa gertu edukiko dute auzotarrek. Mezaren ostean,

trikitilariak izango dira. Hortaz, eguraldiak laguntzen badu, mendi ibilalditxo egin eta Arantzeta hurreratzeko aukera izango dugu. Egun hori antolatzeko, 130 euroko dirulaguntza eman die auzotarrei Jai batzardeak.

JAI BATZORDEAREN BATZARRA

Herriko Ferixa Nagusixaz gain, auzoetako jaiez ere arduratzen da Jai batzardea. Azken asteotan, uztailearen 3tik 6ra artean izango diren jaien egitaraua antolatzen dihardute buru-belarri. Jai batzordearen hurrengo batzarra datorren eguaztenean izango da, hilaren 12an. Batzar horretara gonbidatuta daude aurtengo jaietarako proposamenak egin nahi dituzten herritarrek.



Elgetar ugari gerturatu ohi da egun horretan Arantzeta auzora.

LABUR

Euskal Mendizale Federakundearen batzarra Espaloian

Euskal Herriko Mendi Federakundeak batzarra egingo du Elgetan otsailaren 15ean. Batzarra 15:30ean izango da Espaloia aretoan. Gai hori aztertuko dituzte batzarreko aurreko akta irakurri ondoren bidezkoa bada, onetsi; ibilbide luzeetarako araudi berria Federazioen Batasunarekin bat egitea; Iparraldeko Taldeak EMFn; UIAA; 2003ko aurrekontuak; 2002ko urteko jardueren aurkezpena; eta 2003rako asmoak eta eskakizunak eta galderak.

Ezohiko batzar horretan Euskal Herriko mendi talde gehienak batuko dira.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Prestige
Elgetara

San Juan erreka bidian dabizenean emon doskue abixua. Bidian gora (eta behera) ikusi dittue Prestige petrolio-untzixan arrastuak. Autoridadiak, zergaitixa asmau ezinka dihardue. EHLEko (Euskal Herriko Listuener Elkarte) zientzilarixekin batu gara. Primizia emon doskue (euro mordua ordainduta):

Elgeta eta Bergara arteko bidian, 51 bide-zulo dare (gorako norabidian 27 eta beheakuan 24). Eibartik Gasteizera bizkorrago juateko egiten dabizen astopistan, arazuak daren bakoitzian, auto illaria Elgetatik bideratzen dabe (herriko oiñezkuen lasaitasunerako). Astuek be, orkattillak bihurrituko zittuen hemen bidian. Gidari abillenek bakarrik saihesten dittue hango bide-zuluak. Beste danok, erruberia sartu eta sartu. Eta bidia, autuetako olixo eta gasoliña arrastoz beteta. Zientzilarixen arabera, Debagoieneko gasolindegixetan banatzen diharduen olixo-gasoliña eta itsasopeko petroleruak zaroian petroleua, leku bardiñetik datoz.

Galizian moduan, errua kapitaiñari botatzeik ez dagoenez, arrastuak jaso eta zuluak tapatzeko kanpaiña bat eruango dogu aurrera. Galiziara juanda besteko ezagun egingo ez zaran arren, animo, egin zaitez boluntario.

KULTURA

White Flag eta Ken Stringfellow taldeen kontzertua izango da bihar gauean Espaloian

O.E.

Munduan zehar egiten diharduen biraren barruan, geldialdia egingo du bihar Elgetan White Flag talde enigmatikoak. Palm Springs eta Los Angeles arteko basamortutik datozen musikariek 1982an ekin zioten ibilbideari. Izan ere, urte hartan argitaratu zuten izugarritzko arrakasta izan zuen *S is for space* diskoa.

Ordutik hona 20 urte pasatu diren arren, AEBetako taldeak *power pop* eta punk estiloetako musika egiten duten talde ezagunenen artean jarraitzen du. Hortaz, musika mota hori gustuko dutenek ezin dute hutsik egin. Gaztemaniak-ek antolatu du eta Espaloia aretoan izango da. Rock amerikarraren legendan sar dezakegun talde horren kontzertua



O.E.

Power pop eta punk doinuak entzuteko aukera aparta izango dugu bihar gauean.

gaueko hamarretan izango da. Sarrera bost euro kostatzen da, eta Espaloian bertan salduko dituzte, kontzertuaren aurretik.

Bihar gaueko kontzertuan, biran White Flag taldearekin batera diharduen Ken Stringfellow taldea entzuteko aukera ere izango dugu. Talde hori ere AEBetatik dator eta pop eta punk estiloetako musika egiten du.

SAN BALENTIN EGUNEAN DANTZALDIA

Bestalde, otsailaren 14an, San Balentin eguna, dantzaldia izango da Espaloian, Musikal Araba taldearekin, 21:00etan. Erretiratuen elkarteak antolatu du.

Erretiratuen elkarteak herriar guztiak gonbidatu nahi ditu dantzaldira. Dantzaldirako sarrera doan izango da eta gauerdira arte iraungo du.



Luizixa izan zan Karabietara bidian

Hemen asteko eurixak dirala-eta, luizixa izan zan martitzen goizian Elgeta eta Eibar arteko bidian. Karabieta gainera heldu aurretik, Azulako bidegurutziaren aurreko errebueltan izan zan luizixa. Erretratuan ikusten danez, mendixan behera harri galantak bota zittuan luizixak. Egindako eurixek Aixolako presia beteta egotia eragin dabe. /O.E.



Mapa toponimikua banatu dabe

Aurreko barikuan aurkeztu zeben *Elgetako Mapa Toponimikoa*. Mapiaren egilliak, Alberto Telleriak, mapia egitteko orduan izan dittuan zailtasunak eta mapia egittian zergaitixak azaldu zittuan bertan. Hemen astian, herriko etxe dantetan banatu dabe mapa toponimikua. Mapok udaletxian eta liburutegixan salduko dittue aurrerantzian. /O.E.

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZHARRA

BERGARA

Unzurrunzaga
tindategiko
lantegiak

Bergarako Udal Artxiboan utzi digute ondoko argazkia. Hain zuzen ere, Mari Karmen Laskurainek eraman zuen irudia Udal Artxibora. Erretratua XX. mendearen hasierakoa da, 1910. urte ingurukoa. Unzurrunzaga tindategiaren orduko langileak ikusten ditugu argazkian.

Unzurrunzaga tindategia San Lorentzon zegoen, ermita egon zen lekutik oso gertu. Jaso dugun informazioaren arabera, Unzurrunzaga tindategia Oregui, Unzurrunzaga eta Cia enpresa bilakatu zen gero.

Honako hauek dira argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara: Pio Arrese, Rafael Unzurrunzaga, ezezaguna, ezezaguna, Modesto Pipaon (gerrikoarekin), Felix Beitia, Jose Julian Laskurain, ezezaguna, Guillermo Urriategi eta Jose Maria Laskurain.

Argazkia: BUA (Mari Karmen Laskurain)



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Irizar jauregiko
lorategia

Ez dira urte asko pasatu eskumako bi argazkiak atera zituztenetik. Hala ere, Irizar jauregiko lorategiak aldaketa handia izan du azken urteotan. Hainbat urtez riahiko lagata izan ondoren, Udalak Irizar jauregia eta lorategia bera berritzeko erabakia hartu zuen. Jauregian hainbat zerbitzu eskaintzen dira gaur egun. Lorategia, berriz, zuhaitzez, lorez, berdegunez eta farolaz apaindu zuten.



≈ 1992

Irizar jauregiko berdegunea, 90eko hamarkadaren hasieran. Garai hartan, lorategia berritzeko erabakia hartu zuen Udalak.



2003

Irizar jauregiko berdeguneak itxuraldatu nabarmena izan du. Iaz, berriz ere asfaltatu zuten eta herritar dezente pasatzen da bertatik.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDEA

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Integratzailea • Euskalduna • Anitza • Dohaina

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

2003-2004
Ikasturterako
MATRIKULAZIOA

2 urtetik 16 urtera

MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 3tik 14ra

SAN MARTIN

HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZA (HH-LH) (2-12 urte)

Boni Laskurain 25 • Tel.: 943 76 21 47
e-mail: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara / 15:00etatik 17:00etara

IPINTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZA (DBH) (12-16 urte)

Boni Laskurain 17-19 • Tel.: 943 76 31 42
e-mail: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi

ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara / 15:00etatik 17:00etara



GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

